

SUAREN BIDEA

Zail.	Maila	Aztikeriaren ondorioen adibideak
	1	Su txikiak sortzeko gai zara: eskuan garraiatu dezakezun sua sortu. Zure inguruan dagoen material erregaia piztu.
	2	Suaren gainean kontrol handiagoa lortzen duzu: Suzko esfera txikiak jaurti. Kanpaleku-su bat amatatu, edo bere suarekin formak egin.
	3	Higitzen den sua kontrolatzen hasten zara: Zure eskuetan suzko zigorrak sortu eta haiekin eraso. Gizaki baten altuera duen sute bat sortu, amatatu, lekuz mugitu, formaz aldatu edo zabaldu.
	4	Suaren botere leherkorrak ikasten dituzu: Gela ertain baten tamainako leherketa egin, kontrol handirik gabe.
	5	Suaren lengoaia ulertzen duzu: Erretako objektu eta gorpuen memoriak ikusi. Suzko izpirituekin hitzegin.
	6	Suaren botere leherkorrak menderatzen dituzu: Gela ertain baten tamainako leherketa egin, nahi dituzun ituak sahiestuz.
	7	Suaren izpirituak lagun dituzu: Suaren izpiritu behereak deitu, edo izpiritu boteretsuagoak limurtu.
	8	Suteen maisu zara: Eraikin oso baten tamainako sua piztu edo itzali.
	9	Suaren izpiritu handiak lagun dituzu: Suaren izpiritu boteretsuak deitu borrokan laguntzeko, edo izpiritu gorenen bat limurtu.

IZOTZAREN BIDEA

Zail.	Maila	Aztikeriaren ondorioen adibideak
	1	Izotz txikiak sortzeko gai zara: eskuan garraiatu dezakezun izotz objektua sortu. Hurbil dagoen ura izoztu, edo izotza urtu. Inguruneko hotzetik babestu.
	2	Izotzaren gainean kontrol handiagoa lortzen duzu: Izotz magikozko labana gogortuak jaurti. Izotzezko eskultura ertaina ezerezatik sortu.
	3	Higitzen den izotza kontrolatzen hasten zara: Zure eskuetan izotzezko zigorrak sortu eta haiekin eraso. Gizaki baten altuera, hogeit bat zentimetrotako lodiera, eta metro batzuetako zabalera duen izotz horma deitu.
	4	Izotzaren magia boteretsuak egiten ikasten duzu: Gela ertain baten tamainako izotz olatua egin, kontrol handirik gabe, bertako guztia zaurituz edota izoztuz.
	5	Izotzaren lengoia ulertzen duzu: Izoztutako objektu, gorpuen eta paisaien memoriak ikusi. Hotzaren izpirituekin hitz egin.
	6	Izotzaren botere leherkorrenak menderatzen dituzu: Gela ertain baten tamainako izotz olatua egin, nahi dituzun ituak sahiestuz.
	7	Hotzaren izpirituak lagun dituzu: Hotzaren izpiritu behereak deitu, edo izpiritu boteretsuagoak limurtu.
	8	Izotzaren maisu zara: Eraikin oso baten behera botatzeko izotz-erasoa egin, edo izotz magikoz eginiko eraikin bat ezerezatik sortu, eta fresko mantendu.
	9	Hotzaren izpiritu handiak lagun dituzu: Hotzaren izpiritu boteretsuak deitu borrokan laguntzeko, edo izpiritu gorenen bat limurtu.

ESKRIMAREN BIDEA

Zail.	Maila	Aztikeriaren ondorioen adibideak
	1	Zure armek zehaztasun magikoa lortzen dute: Ezpatak, labanak, aizkorak, alabardak... bizitza propioa balute bezala mugitu edo jaurti.
	2	Objektuak mila zatitan banatu ditzakezu: Zure ingurua ezpatakadaz asetu, erasoak geldituz, edota inguru hortan dauden ituak erasoz.
	3	Zure esentzia magikoa armetatik proiektu dezakezu: Armatik energia olatua edo izpia igorri.
	4	Zure arma esentzia magikoz indartu dezakezu: Armarekin edozein gauza mundutar eta gauza magiko gehienak mozteko ahalmena duen eraso egin.
	5	Arma hegalaria mordo deitu dezakezu: Hainbat ituren kontra jaurti ahal dituzun arma hegalaria indartuak deitu.
	6	Zure gorputza gerlari gorenena sena lortzen du: Hegan egiteko ahalmena lortu minutu batzuek, eta zure abiadura bikoiztu.
	7	Gerlari gorenena bidea hasten duzu: Hainbat metrotako arma edo izkutu gorena deitu eta berarekin eraso edo defendatu.
	8	Arma gartzela deitzen duzu: Itua arma magiko hondaezinetan ehortzi, zaurituz eta magia boteretsuz harrapatuz.
	9	Gerlari gorena bihurtzen zara: Argiaren izpiritu erraldoi hegalaria bilakatu minutu batzuek.

HIZLARITZAREN BIDEA

Zail.	Maila	Aztikeriaren ondorioen adibideak
	1	Zure ahotsaren kontrola duzu: Zure ahotsa guztiz aldatu, beste edozein soinu imitatuz. Ahotsaren iturriaren itxurazko kokalekua aldatu.
	2	Ahotsen bolumena magikoki kontrolatu dezakezu: Gizaki bat bultzatzeko indarra duen soinu-uhina bota. Tabernaren zarataren gainetik hitz egin. Itu bat mututu.
	3	Entzumena magikoki indartzen duzu: Pertsona baten ahotsaren mikroespresioak entzun. Ehun metrotara elkarrizketa ulertu zaratarik ez badago.
	4	Zure ahotsaren bolumenaren gaineko kontrola areagotzen duzu: Zure aurrean dauden hainbat pertsonaren aurka soinu-uhin indartsua igorri.
	5	Zure hitzen esannahien boterea handitzen duzu: Norbait edozein gauzataz konbentzitu une batez, edo zentzuzko gauza batetaz betirako konbentzitu.
	6	Materiaren bibrazio naturala manipulatu dezakezu: Metalezko, arrokazko... objektu ertainei forma eman, edo hauek birrindu. Ez du egurrearekin funtzionatzen.
	7	Zure hitzek hainbat pertsona manipulatu dezakete batera: Talde bat edozein gauzataz konbentzitu une batez, edo zentzuzko gauza batetaz betirako konbentzitu.
	8	Hitz primordialak ezagutzen dituzu: Etxe bat behera botatzeko ahalmena duen oihua edo bibrazioak igorri.
	9	Errealitatearen bibrazio naturalekin bat zara: Ezerezatik objektu ertainak sortu. Ehun kilometrotara teleportatu. Zauden lekuko iragana ikasi.

LANDAREEN BIDEA

Zail.	Maila	Aztikeriaren ondorioen adibideak
	1	Zuhaixkak eta beste landara txikiak komandatu ditzazkezu: Existitzen den zuhaixka baten sustraiak hazi etsai baten hankak trabatzeko.
	2	Ezerezatik landara txikiak deitu ahal dituzu: Te lasaigarria prestatzeko landara deitu. Ikutzen zauden norbaiti egurrezko bilurrak hazi eskumuturretan.
	3	Landarekin eraso boteretsuak egiteko gaitasuna lortzen duzu: Sasiz eginiko zigorra deitu eta berarekin eraso. Urrun dagoen norbaiti bilurrak hazi.
	4	Landareen lengoia ikasten duzu: Etsai baten aztarna jarraitzen zaudelarik, zuhaitz bati galdetu etsaia hortik igaro den.
	5	Zuhaitzak eta beste landara handiak komandatu ditzazkezu: Zuhaitz baten adarrak bere inguruan dagoen guztia erasoarazi.
	6	Ezerezatik zuhaitzak deitu ahal dituzu: Arrokazko zorutik zuhaitz heldu bat hazi, bertako objektu edota etsaien kontra talka egiten duena.
	7	Landareen izpirituak lagun dituzu: Landareen izpiritu behereak deitu, edo izpiritu boteretsuagoak limurtu.
	8	Egurraren maisua zara: Lurzorutik egur naturalez eginiko etxe oso bat deitu.
	9	Landareen izpiritu handiak lagun dituzu: Landareen izpiritu boteretsuak deitu borrokan laguntzeko, edo izpiritu gorenen bat limurtu.

GRABITATEAREN BIDEA

Zail.	Maila	Aztikeriaren ondorioen adibideak
	1	Objektu ertainen eta pertsonen grabitate lokala modifikatu dezakezu: Ituaren pisua bikoiztu, edo erdira jaitsi.
	2	Grabitatea horizontalizatu dezakezu: Itu bakarrari alborantzko momentuzko bultzada eman. Horma batetik korrika igo.
	3	Grabitate putzuak sortu ditzazkezu: Bere metro batzuetara dagoen dana erakartzen duen grabitate iturri puntuala sortu.
	4	Grabitatearen intentsitatearen gaineko kontrol handia duzu: Hegan egin une batez, tamaina ertaineko ituaren grabitatea inbertitu edo laukoiztu.
	5	Hainbat grabitate putzu sortu ditzazkezu batera: Hainbat itu leku ezbardinetarantz bultzatu, edo euren grabitate lokala bikoiztu edo erditu.
	6	Zizare-zulo ezegonkorrak sortu ditzazkezu: Gizaki baten tamainako itua hamarnaka metro teleportatu.
	7	Uhin grabitatorioak irakurtzen ikasten duzu: Kilometrotara dauden objektuen mugimendua somatu.
	8	Grabitatearen maisua zara: Etxe baten tamainako ituaren edo zonalde baten grabitatea deuseztatu, alderantzikatu, laukoiztu edota horizontalizatu.
	9	Zulo beltz ezegonkorrak jaurti ahal dituzu: Zuloa igorri, bere ibilbidearen hogei zentimetro inguruko zilindroan dagoen edozer xurgatzen duena, eta metro batzuen ondoren arrastorik gabe ebaporatzen dena.